

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Okarizko OK-2 egikaritze unitatearen hitzarmen proposamena

Alkatearen 2019ko uztailaren 12ko probidentzia baten bidez, eta ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, bere 7. xedapen gehigarrian jasotakoarekin bat etorritik, jendaurrean jartzen da Okarizko OK-2 egikaritze unitateari eragiten dion hirigintza hitzarmenaren eduki osoa, hogeitun egun baliadun iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki irizitako alegazioak aurkeztu daitezzen.

Okarizko OK-2 egikaritze unitaterako hitzarmen proposamena.

— BILDU DIRA —

Alde batetik,

Erika Letamendi Hurtado andrea, Donemiliagako alkatea (haren datu pertsonalik ez da adierazten, bere karguaz baliatuz jardun baitu).

Beste alde batetik,

Alfonso Jesús Pineda Capellán jauna, adinduna (helbidea: San Migel kalea 1, Okariz; NAN zk.: xxxxx)

Palmira Lecea Jiménez andrea, adinduna (helbidea: San Migel kalea 1, Okariz; NAN zk.: xxxxx)

— PARTE HARTU DUTE —

Erika Letamendi Hurtado andreak, alkate-lehendakari den aldetik, Donemiliagako Udalaren izenean eta ordezkaritza, zeinak ahalmena daukan egintza honetan jarduteko.

Alfonso Jesús Pineda Capellán jaunak eta Palmira Lecea Jiménez andreak, beren izenean.

— ADIERAZTEN DUTE —

Lehenengoa. Alfonso Jesús Pineda Capellán jauna eta Palmira Lecea Jiménez andrea dira Okarizko OK-2 egikaritze unitatean dauden lursailen jabe bakarrak, 2019ko uztailaren 9an Arabako Agurainen Luis Troyano de Loma-Ossorio notario jaunak baimendutako eskrituraren arabera (agiria erantsi da).

Bigarrena. OK-2 egikaritze unitatearen eremuko eta Donemiliagako arau subsidiarioetan ezarritako fitxaren arabera, Eusko Legebiltzarraren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak (hemendik aurrera Lurzoruaren euskal Legea) definitutako kudeaketa sistemetatik hitzarmenarena da aukeratutakoa.

Hitzarmen sistemaren betekizunetako bat da udalaren eta eremuko lurzoruaren jabe bakarraren arteko hitzarmena sinatzea, Lurzoruaren euskal Legearen 160.2. eta 160.5. artikuluetan jasotako edukiaz.

Horregatik guztiagatik, alderdi biek ondoko hitzarmena sinatzea erabaki dute, ondorengo klausulei men eginez:

— KLAUSULAK —

Lehenengoa. Alfonso Jesús Pineda Capellán jaunak eta Palmira Lecea Jiménez andreak hitzematzen dute berriro lurzaticatzeko agiria egingo dutela Okarizko OK-2 egikaritze unitatea gauzatzeko, halaxe jasotzen baitute Donemiliagako arau subsidiarioek.

Bigarrena. OK-2 egikaritze unitatea berriro lurzaticatzeko proiektuak Donemiliagako Udalari esleituko dizkio emaitza finken barnean bideak egiteko nahitaez laga beharreko lursailak, eremuaren fitxan definitutakoak.

Hirugarrena. Lurzoruaren euskal Legeak 27.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, finkatu gabeko hiri lurzoruaren kasuan nahitaez laga behar zaio udalari batez besteko hirigintza erai-kigarritasunaren ehuneko 10.

Azaroaren 28ko 11/2008 Legeak, hirigintza jarduerengatik sortutako gainbalioetan er-kidegoak izan behar duen parte hartzea aldatzen duenak, ezarritakoaren arabera, hirigintza aprobetxamenduaren ehuneko 15ari dagokion lagapena egingo da, eta ez da egongo urbanizazio kargarik.

Okarizko OK-2 egikaritze unitatearen ezaugarriengatik, lagapen horrek ez du eskubiderik sortzen Udalak orube edo lurzati eraikigarri bat gutxienez jabari osoz izateko. Beraz, eraikigarritasuna lagatzearen orde haren balioa ordainduko da eskudirutan, eta balio hori kalkulatzeko modua berriro lurzaticatzeko proiektuan adieraziko da.

Laugarrena. Alfonso Jesús Pineda Capellán jaunak eta Palmira Lecea Jiménez andreak beren gain hartzen dituzte Okarizko OK-2 egikaritze unitatearen urbanizazio gastu guztiak.

Bosgarrena. Hitzemandakoaren berme gisa, Alfonso Jesús Pineda Capellán jaunak eta Palmira Lecea Jiménez andreak hamabost egun baliodun izango dituzte hitzarmen hau sinatzen dutenetik aurrera urbanizazio gastuen ehuneko 7ko abala formalizatzeko; hau da, 13.651,43 euro.

Seigarrena. Bestalde, Udalak hitzematzen du baliogabetu egingo duela abala, behin urbanizazio obrak jasotzen dituenean, sustatzaileak alferreko gasturik egin ez dezan.

Horrela jasota gera dadin, hitzarmen hau sinatzen dute bi alderdiek goian adierazitako tokian eta egunean.

Erdoña, 2019ko uztailaren 15a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO